

UPV/EHUren GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BATZARRA
JUNTA DE CAMPUS DE GIPUZKOA DE LA UPV/EHU

OHIKO BILKURAREN AKTAREN ERANSKINA
ANEXO ACTA DE SESIÓN ORDINARIA

2019ko urriaren 11a / 11 de octubre de 2019



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza
Vicerrectorado del Campus de Gipuzkoa

GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BATZARRAREN BATZORDE ORDEZKATUAK

COMISIONES DELEGADAS DE JUNTA DE CAMPUS DE GIPUZKOA

EKONOMIA BATZORDEA / COMISIÓN ECONÓMICA

Gipuzkoako Campuseko Gerenteordea/ Vicegerenta de Campus de Gipuzkoa

- Edurne Basoa González and.

Gipuzkoako Campuseko Zentro eta Ataleko Dekano eta Zuzendarien Ordezkariek/ Representantes de Decanos/as y Directores/as de los Centros y Coordinadores de Secciones de Centros del Campus de Gipuzkoa:

- Jose María Beraza Garmendia jn. - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Donostiako Atala
- Xabier Ostolaza Zamora jn. - Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
- Marian Iriarte Ormazabal and. - Kimika Fakultatea

Saileko Zuzendarien, Campuseko Sail Ataleko Koordinatzaileen eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuetako Zuzendarien ordezkaria/ Representante de Directores/as de Departamento, coordinadores/as de Sección Departamental de Campus y Director/a de Institutos Universitarios de Investigación:

- Karmele Salaberria Irizar and. - Psikologia Fakultatea

Irakasleen ordezkaria/ Representante de Profesorado:

- Alberto Diaz de Junguitu jn. - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea - Donostiako Atala

Ikasleen ordezkaria/ Representante de Alumnado:

- berritzeke.

A.Z.P. Langileen ordezkaria/Representante del P.A.S.:

-Oskia Aguirre Orbegoza and.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza
Vicerrectorado del Campus de Gipuzkoa

ARLO ZIENTIFIKOKO ETA UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO BATZORDEA/ COMISIÓN CIENTÍFICA Y DE EXTENSIÓN UNIVERSITARIA

Gipuzkoako campuseko Euskara, eleaniztasuna eta ikaslegorako zuzendaria/ Director de Euskara, Plurilingüismo y Alumnado del Campus Gipuzkoa

- Errapel Ibarloza Arrizabalaga jn.

Gipuzkoako Campuseko Zentro eta Ataleko Dekano eta Zuzendarien Ordezkariek/ Representantes de Decanos/as y Directores/as de los Centros y Coordinadores de Secciones de Centros del Campus de Gipuzkoa:

- Juan José Arrizabalaga Echeberria jn. - Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa
- J. Inazio Marko Juanikorena jn. - Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
- Alexander Mendiburu Alberro jn. - Informatika Fakultatea

Saileko Zuzendarien, Campuseko Sail Ataleko Koordinatzaileen eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuetako Zuzendarien ordezkaria/ Representante de Directores/as de Departamento, coordinadores/as de Sección Departamental de Campus y Director/a de Institutos Universitarios de Investigación:

- berritzeke

Irakasleen ordezkaria/ Representante de Profesorado:

- Olatz Irulegi Garmendia and. - Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa

Ikasleen ordezkaria/ Representante de Alumnado:

- berritzeke.

A.Z.P. Langileen ordezkaria/Representante del P.A.S.:

-Oskia Aguirre Orbegoza and.



ARAUDI BATZORDEA/ COMISIÓN NORMATIVA

- Agustin Erkizia Olaizola jn. - Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea
- Itziar Zubia Olaskoaga and. - Gipuzkoako Campuseko Idazkari Akademikoa

Gipuzkoako Campuseko Zentro eta Ataleko Dekano eta Zuzendarien Ordezkariek/ Representantes de Decanos/as y Directores/as de los Centros y Coordinadores de Secciones de Centros del Campus de Gipuzkoa:

- Juan José Arrizabalaga Echeberria jn.- Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa
- J. Inazio Marko Juanikorena jn. - Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
- Gabriela Chotro Lerda and.r Mendiburu Alberro jn. – Psikologia Fakultatea

Saileko Zuzendarien, Campuseko Sail Ataleko Koordinatzaileen eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuetako Zuzendarien ordezkaria/ Representante de Directores/as de Departamento, coordinadores/as de Sección Departamental de Campus y Director/a de Institutos Universitarios de Investigación:

- berritzeke

Irakasleen ordezkaria/ Representante de Profesorado:

- Idoia Otaegui Aizpurua and. – Zuzenbide Fakultatea

Ikasleen ordezkaria/ Representante de Alumnado:

- berritzeke.

A.Z.P. Langileen ordezkaria/Representante del P.A.S.:

- Emilio Zubia Flaño jn.



GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BATZARRAREN BATZORDE ORDEZKATUAK
COMISIONES DELEGADAS DE JUNTA DE CAMPUS DE GIPUZKOA

EKONOMIA BATZORDEA / COMISIÓN ECONÓMICA

Gipuzkoako Campuseko Gerenteordea/ Vicegerenta de Campus de Gipuzkoa

- Edurne Basoa González and.

Gipuzkoako Campuseko Zentro eta Ataleko Dekano eta Zuzendarien Ordezkariek/ Representantes de Decanos/as y Directores/as de los Centros y Coordinadores de Secciones de Centros del Campus de Gipuzkoa:

- Jose María Beraza Garmendia jn. - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Donostiako Atala
- Xabier Ostolaza Zamora jn. - Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
- Marian Iriarte Ormazabal and. - Kimika Fakultatea

Saileko Zuzendarien, Campuseko Sail Ataleko Koordinatzaileen eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuetako Zuzendarien ordezkaria/ Representante de Directores/as de Departamento, coordinadores/as de Sección Departamental de Campus y Director/a de Institutos Universitarios de Investigación:

- Karmele Salaberria Irizar and. - Psikologia Fakultatea

Irakasleen ordezkaria/ Representante de Profesorado:

- Alberto Diaz de Junguitu jn. - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea - Donostiako Atala

Ikasleen ordezkaria/ Representante de Alumnado:

- berritzeke.

A.Z.P. Langileen ordezkaria/Representante del P.A.S.:

-Oskia Aguirre Orbegoza and.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza
Vicerrectorado del Campus de Gipuzkoa

ARLO ZIENTIFIKOKO ETA UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO BATZORDEA/ COMISIÓN CIENTÍFICA Y DE EXTENSIÓN UNIVERSITARIA

Gipuzkoako campuseko Euskara, eleaniztasuna eta ikaslegorako zuzendaria/ Director de Euskara, Plurilingüismo y Alumnado del Campus Gipuzkoa

- Errapel Ibarloza Arrizabalaga jn.

Gipuzkoako Campuseko Zentro eta Ataleko Dekano eta Zuzendarien Ordezkariek/ Representantes de Decanos/as y Directores/as de los Centros y Coordinadores de Secciones de Centros del Campus de Gipuzkoa:

- Juan José Arrizabalaga Echeberria jn. - Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa
- J. Inazio Marko Juanikorena jn. - Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
- Alexander Mendiburu Alberro jn. - Informatika Fakultatea

Saileko Zuzendarien, Campuseko Sail Ataleko Koordinatzaileen eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuetako Zuzendarien ordezkaria/ Representante de Directores/as de Departamento, coordinadores/as de Sección Departamental de Campus y Director/a de Institutos Universitarios de Investigación:

- berritzeke

Irakasleen ordezkaria/ Representante de Profesorado:

- Olatz Irulegi Garmendia and. - Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa

Ikasleen ordezkaria/ Representante de Alumnado:

- berritzeke.

A.Z.P. Langileen ordezkaria/Representante del P.A.S.:

-Oskia Aguirre Orbegoza and.



ARAUDI BATZORDEA/ COMISIÓN NORMATIVA

- Agustin Erkizia Olaizola jn. - Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea
- Itziar Zubia Olaskoaga and. - Gipuzkoako Campuseko Idazkari Akademikoa

Gipuzkoako Campuseko Zentro eta Ataleko Dekano eta Zuzendarien Ordezkariek/ Representantes de Decanos/as y Directores/as de los Centros y Coordinadores de Secciones de Centros del Campus de Gipuzkoa:

- Juan José Arrizabalaga Echeberria jn.- Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa
- J. Inazio Marko Juanikorena jn. - Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
- Gabriela Chotro Lerda and.r Mendiburu Alberro jn. – Psikologia Fakultatea

Saileko Zuzendarien, Campuseko Sail Ataleko Koordinatzaileen eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuetako Zuzendarien ordezkaria/ Representante de Directores/as de Departamento, coordinadores/as de Sección Departamental de Campus y Director/a de Institutos Universitarios de Investigación:

- berritzeke

Irakasleen ordezkaria/ Representante de Profesorado:

- Idoia Otaegui Aizpurua and. – Zuzenbide Fakultatea

Ikasleen ordezkaria/ Representante de Alumnado:

- berritzeke.

A.Z.P. Langileen ordezkaria/Representante del P.A.S.:

- Emilio Zubia Flaño jn.



BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN PERMANENTE

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea/ Vicerrector de Campus de Gipuzkoa

- Agustin Erkizia Olaizola jn.

Gipuzkoako Campuseko Gerenteardea/ Vicegerenta de Campus de Gipuzkoa

- Edurne Basoa González and.

Gipuzkoako Campuseko Idazkari Akademikoa / Secretaria Académica de Campus de Gipuzkoa

- Itziar Zubia Olaskoaga and.

Gipuzkoako Campuseko Zentro eta Ataleko Dekano eta Zuzendarien Ordezkariek/ Representantes de Decanos/as y Directores/as de los Centros y Coordinadores de Secciones de Centros del Campus de Gipuzkoa:

- Xabier Ostolaza Zamora jn. - Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
- Alexander Mendiburu Alberro jn. - Informatika Fakultatea
- Marian Iriarte Ormazabal and. - Kimika Fakultatea
- Jesus Rubio Pilarte jn.- Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Gipuzkoako atala)
- Juana Goizueta Vertiz and. Zuzenbide Fakultatea

Saileko Zuzendarien, Campuseko Sail Ataleko Koordinatzaileen eta Unibertsitateko Ikerketa Institutuetako Zuzendarien ordezkaria/ Representante de Directores/as de Departamento, coordinadores/as de Sección Departamental de Campus y Director/a de Institutos Universitarios de Investigación:

- Iñaki Begiristain Mitxelena jn. - Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa

Irakasleen ordezkaria/ Representante de Profesorado:

- Daniel Losada Iglesias jn. - Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa

Ikasleen ordezkaria/ Representante de Alumnado:

- berritzeke.

A.Z.P. Langileen ordezkaria/Representante del P.A.S.:

- Oskia Aguirre Orbegoza and.

KUDEAKETA TXOSTENA 2018-2019

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza

Oharra: dokumentu hau EHUko 2018-2019 Kudeaketa Txostenean oinarritzen da. Gipuzkoako Campusetik egin diren atalak mantendu eta berriak sortu ditugu, beti ere jatorrizko Kudeaketa Txosten orokorrean azaltzen diren zenbakiak mantenduz.

1. IKASTEKO UNIBERTSITATEA

1.1. Dagoeneko eskaintzen diren titulazioak hobetzea eta titulazio berritzaileak eta erakargarriak sortzea, gizarte eragileen eta ikasleen partaidetzarekin.

1.1.2. Egungo prestakuntza eskaintza euskal gizartearen premietara egokitu dadila sustatzea, titulu berritzaileak eta erakargarriak sortuta.

- ✓ Elias Querejeta Zine Eskola (EQZE) atxikitu zaio campusari. Bi hitzarmen sinatuz, 2019-20 ikasturtetik aurrera UPV/EHUko Berezko Tituluak izango dira Zinema Artxiboan, Komisariotzan eta Sorkuntzan EQZEek eskaintzen dituen nazioarteko graduondokoak.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiak bi urtetarako emandako diru laguntzari esker, EGOKITU, UPV/EHUko Udako Campusaren 2. edizioa egin da Gipuzkoako Campusean iragan uztailean, Gipuzkoako Bazkondearekin lankidetzan. Gipuzkoako Campuseko sei ikastegik parte hartu dute (Ekonomia eta Enpresa Fakultateak, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak, Informatika Fakultateak, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak, Kimika Fakultateak eta Zuzenbide Fakultateak) eta koordinazioa eta gestio ekonomikoa Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren eskutik etorri da. 78 ikaslek eman dute izena (51 gizonezko eta 27 emakumezko).

1.1.3. Ikastegi eta/edo titulazioen arteko lankidetzak bultzatzea, gradu bikoitzak garatzeko.

- ✓ Gipuzkoako Campusean Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua + Zuzenbideko Gradua gradu bikoitza 2019-2020 ikasturtean ezartzeko beharrezkoak diren neurri eta akordioak hartu dira.

1.1.4. Prestakuntza programak garatzea Lanbide Heziketako zentroekin lankidetzan.

- ✓ 2017/2018 ikasturtean Gipuzkoako Lanbide Heziketako Institutu Publikoen Elkartea den IKASLANekin hasitako elkarlanari esker, 2 +3-a (alegia, lanbide heziketako goi mailako gradu titulua duen ikasleak hiru urtetan lortu ahal dezan unibertsitateko gradu titulua) ezartzea posible egingo duen kredituen aitortzarako taula onartu dute, lehenik Informatika Fakultateko Batzarrak eta, ondoren, Graduako Batzordeak.

1.1.6. Prestakuntza duala (ikas-ekinezkoa) bultzatzea graduatan eta graduondokoetan, ikasleen prestakuntza praktikoa hobetzeko eta haien enpleguratzea errazteko.

- ✓ Aurreko ikasturtean formakuntza dualari buruzko jardunaldi berezi bat antolatu zen Unibasq-eko protokola aztertu, portfolio bat aurkeztu, asebetetze eredu bat aurkeztu eta eredu honekin erlazionatutako tutorizazio prozesuari buruzko hausnarketa bat egiteko. Jardunaldi berean, formakuntza dualaren hausnarketa eta hobekuntza tailer bat antolatu zen hainbat gai eztabaidatzeko.
- ✓ Lleidako Unibertsitateak antolatuta, formakuntza dualaren inguruko jardunaldian (El futur de la formació dual) UPV/EHUko Errektoreak eta Gipuzkoako Errektoreordeak parte hartu zuten.

- ✓ "I NAZIOARTEKO BILTZARRA. Unibertsitate Formakuntza Duala Goi Hezkuntzako Europar Esparruan" izenburupean, kongresua antolatu zen Ekainaren 17an.

1.3. Inguruko premiei erantzungo dien etengabeko prestakuntzarako eskaintza sustatzea.

1.3.3. Esperientzia Gelen eskaintza sozio-hezitzailea sendotzea.

- ✓ Gipuzkoan eskaintzen den Giza Zientziak Unibertsitate Tituluaren XVII promozioan, 2018-19 ikasturtean, 49 pertsonak amaitu dituzte beraiei ikasketak (% 60 emakumeak eta % 40 gizonak). Datu hauei lehen, bigarren eta hirugarren mailako ikasleak gehituta, guztira 211 ikasle izan dira guztira ikasturte honetan.
- ✓ Helduentzako Unibertsitate Ikastaroetan, 133 ikaslek eman dute izena (% 56,4 emakumeak eta % 43,6 gizonak).
- ✓ Giza Zientziak Tituluan 46 irakasgai eman dira (18 enborrekoak eta 28 hautazkoak). Helduentzako Unibertsitate Ikastaroetan, berriz, 55 irakasgai izan dira.
- ✓ 13 kultur solasaldi antolatu dira, hainbat gairen inguruan. Gainera, Irakasgaietan sakondu eta ikasitakoa zehazteko (gai hauei loturiko irakasgaietan bereziki: Euskal Herriko ondare historiko-artistikoa, artearen historia, euskal kultura, euskal foruak, ingurunearen ezagutza: Geografia eta ekologia), 21 irteera didaktiko antolatu dira.
- ✓ Azkenik, zuzendaritza eta ikasleek Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako I. Adinberri kongresuan parte hartu zuten 2018ko azaroaren 22-23an.

1.5. Gradu eta graduondoko ikasleen artean eragin handiko ikaskuntzen aukerak areagotzea.

1.5.2. Erakundeetan, enpresetan edo UPV/EHUren beraren zerbitzu espezializatuetan egiten diren kualifikazio handiko praktikak sustatzea.

- ✓ Gipuzkoako Campusean, curriculumetik kanpoko praktikak egiteko 816 plaza adjudikatu dira (% 55 gizonenak, % 45 emakumeenak), eta horietatik 493k ekarpen ekonomikoa jaso dute.

1.5.3. Inguruko erakunde eta enpresetan egiten diren Gradu Amaierako Lanak, Master Amaierako Lanak eta doktorego tesiak indartzea.

- ✓ Aurreko urtean sortutako estrategiarekin jarraituz, lurraldeko sare ekonomiko eta instituzionalarekiko harremanak estutzen jarraitzen dugu. Horretarako oinarritzko hitzarmen bat sinatzen dute Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza eta enpresak edo erakundeak, bultzada emateko praktikei, Gradu Amaierako Lanei, Master Amaierako Lanei, kontratuei eta doktorego tesiei.

1.8. Unibertsitate osoan ekintzailtzaren kultura sortzea.

1.8.1. Ikasleen eta irakasle eta ikerlarien artean ezagutzera ematea UPV/EHUk ekintzailtzaren arloan eskaintzen dituen zerbitzuak.

- ✓ Nahiz ikuspuntu formal batetik Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzaren mendekoa izan, Campusaren Garapenerako eta Kanpo Harremanetako Zuzendariak izan du 2018ko UPV/EHUren Gazte Ekintzailtza Bekak programa diseinatu eta kudeatzeko ardura. Programa honek enpresa arloko ideia edo ekimenak laguntzea du helburu. Honetara, ekintzailtzaren

kultura zabaldu eta aktibatu nahi da bekak jasoko dituzten ikasleen artean, unibertsitatearen eremuan sor litezkeen enpresa ekimenak laguntzearen. Eusko Jaurlaritzak finantziaturiko programa honetan 58 eskaera aurkeztu dira eta 40 esleitu (16 emakumezkoei eta 24 gizonezkoei).

- ✓ Gipuzkoako Campusean, ekintzailetza indartzeko jarduerak egin ditugu. Honako hauek dira:
 - “Ekintzaile senik bai?” Ikastaroa. Ikasleentzat, tituludun pertsonentzat, UPV/EHUko ikertzaileentzat... pentsatutako ikastaroa da; azken batean, ekiteko gaitasunak garatzeko motibazioa duten pertsonentzat. 14 lagun bertaratu dira (5 emakumezko eta 9 gizonezko).
 - Entreprenari Programa aurkezteko jardunaldiak, hainbat fakultate eta eskolatan; kasu batzuetan, elkarlanean Enplegu Gunearekin, Eures Sarearekin, Gaze programarekin eta MDerekin. 88 lagunek hartu dute parte (36 emakumezko eta 52 gizonezko).
- ✓ Gainera, unibertsitate ekintzaileak sortu eta prestatzeko jarduerak egin ditugu. Honako hauek dira:
 - Enpresa Berritzaileak Sortu eta Kudeatzeko Programa, negozio ideiak dituzten ekintzaileentzat, 6 modulu/tailler eskaintzen dituen (66 ordu).
 - “Ikerkuntzaren emaitzen balorizazioa” Jardunaldia. Ikerkuntzaren emaitzen ebaluazioaren eta balorizazioaren alderdi zein teknika garrantzitsuenei buruzko formakuntza saioa. 16 partehartzaile (6 emakumezko eta 10 gizonezko).
 - “Teknologiatik Enpresa Mundura” modulua Kimika Fakultateko Kimika eta Polimeroak Masterrean. Aurrez aurreko 40 ordu eta negozio plana prestatzeko 50 ordu.
 - Elkarlanean aritu gara Psikologia Fakultatearekin ekintzailetzari buruzko modulu bat sortzeko Erakundeen Psikologia eta Esku Hartze Psikosoziala Masterrean. 13 parte hartzaile (9 emakumezko eta 4 gizonezko)
- ✓ Enpresa ekimen berrien detekzio/balorizazioaren alorrean, honako jarduera hauek garatu ditugu:
 - Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, diagnostiko teknologiko bat egin da Campuseko ikerketa taldeek enpresa berriak sortuz merkatuari egin diezaioketen ekarpena aztertzeko. Gipuzkoako Campuseko 5 proiekturen diagnosa egin da.

1.8.2. Ekintzailetza sustatzeko sariak eta ekimenak bultzatzea.

- ✓ Ekonomia eta Enpresa Fakultatearekin (Donostiako atala) elkarlanean, EKINUP LEHIAKETA egin dugu enpresa ideiak dituzten ikasleentzat. Lehiaketan parte hartu aurretik, ikasleek prestakuntza tailer bat egin dute Entreprenari Programaren barnean, enpresa ideien ebaluazio/balorizazioari buruzkoa. Deialdi honetan 5 hautagaitza aurkeztu dira guztira.
- ✓ XVII. Manuel Laborde Werlinden Lehiaketa, enpresa ideia berritzaile onenak saritzeko. 7 hautagaitza aurkeztu dira edizio honetan, eta UPV/EHUko Katalisi Jasangarriko Ikerketa Taldeak eta BioDonostia Institutuko Gaixotasun Neuromuskularren Taldeak aurkeztutako MIRAMOON PHARMA proiektuak eskuratu du lehen saria. Bigarren saria, berriz, Informatika Fakultateko ADIAN ikerketa taldeak aurkeztu duen WIMBITEK ekimenak eskuratu du.

1.8.3. Egun dauden junior enpresak mantentzea eta era horretako proiektu berriak sustatzea.

- ✓ Gipuzkoako Campuseko Errektoreordeak eta Campusaren Garapenerako eta Kanpo Harremanetarako Zuzendaria Campuseko junior enpresa guztien

zuzendaritza batzordeetako kideekin bildu dira horien egoeraren diagnosia egin eta jarduna bultzatzeko neurriak eztabaidatzeko.

1.8.4. «XXI. mendeko Unibertsitate Ekintzailea» kongresua antolatzea.

- ✓ Campuseko Errektoreordetza, Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin batera, UPV/EHUren I. Ekintzailtzaren Nazioarteko Kongresua ari da antolatzen. Horren izenburua "XXI. Mendeko Unibertsitate Ekintzailea: Erronkak eta Aukerak" da, eta Carlos Santamarian egingo da azaroaren 28an.

1.8.5. Bultzada ematea UPV/EHUko ikertaldeek, irakasle-ikertzaileek eta ikasleek sortutako enpresei (spin-off)

- ✓ Entreprenari programaren barnean, 6 enpresa berri sortu dira eta 6 inkubazio fasean sartu dira. Halaber, 11 proiektu daude garapenean.

1.9. Titulatuen laneratzea sustatzea.

1.9.2. Enplegu foro bat antolatzea UPV/EHUko campus guztietan.

- ✓ Gipuzkoako Campusak eta Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzak UPV/EHUren Gipuzkoako Campusaren Lehen Enplegu Foroa antolatu dute. Ignacio Maria Barriola gelategian egin zen iragan otsailaren 28an eta 140 lan-eskaintza ekarri zituzten 31 enpresek parte hartu zuten.

2. UNIBERTSITATE IKERTZAILEA

2.4. Ikerketa indartzea jakintza adar bakoitzaren premien eta egoeraren arabera.

2.4.3. Azpiegiturak, laguntzaileak eta baliabide bibliografikoak ikertzaileen premietara egokitzea.

- ✓ Orain dela 6 urte CCSZ ko azpiegituretako ikerketarako espazioak 11 iker taldeei utzi zitzaizkien eta erabilera egokia izan dela eta konpromisoak bete direla egiaztatu ondoren, espazioen berrantolaketa bat prestatzen ari gara iker talde berri eta ikerlari berriei behar duten medio eta toki egokiak errazteko, ikerketa zientifikoaren kalitatea, proiektuetan partaidetza eta transferentzia aktibitatea ahal den neurrian hobetzeko.
- ✓ Korta eraikineko Erregelamenduak aurreikusten duenari jarraiki, ikerketa taldeek eta institutu teknologikoek bertan dituzten guneen erabilera aldi baterako berritzeko prozedura gauzatu du Campuseko Errektoreordetzak Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin batera.

2.7. Lurraldearekin lankidetzan jarduteko kultura sustatuko duen erakunde ireki eta berritzailea izatea

2.7.1. Estrategia diseinatzea eta beharrezko azpiegitura sortzea behar diren zerga abantaila guztiak izango dituen mezenasgo eta dohaintzetarako prozedura erraz, ikusgarri eta eraginkor baten bidez hiritarrek, enpresek edo erakundeek proiektu zientifiko espezifikoei diru ekarpenak egin ahal izateko

- ✓ Baliabideen ekarpenaren alorrean, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak GFako Ogasun eta Finantza Departamentuarekin iaz abian jarritako lan dinamikarekin jarraitzen du. Horri esker lortu da, besteak beste, interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezko mezenasgo jarduerak 2018. eta 2019. urteetarako ezartzen dituen Foru Dekretuan, UPV/EHUren hainbat jarduera jasota egon daitezen.

2.8. Erreferentziazko eragilea izatea euskal herriaren eraldaketa sozioekonomikorako hazkunde zentzudun eta jasangarriari dagokionez.

2.8.1. Enpresei, erakundeei eta oro har, gizarteari zuzendutako komunikazio jarduerak garatzea, I+G+Bren aukerak eta emaitzak ezagutzera emateko.

- ✓ Noticias de Gipuzkoak antolatutako GI*Talent jardunaldian parte hartu da, lurraldeko eragile zientifiko-teknologikoekin batera. Talentuaren sorrera eta erakartzeari buruzko jardunaldian honetan EHUKo alor zientifiko teknologikoko ikerketen emaitzen transferentziaren datuak azaldu ziren.

2.9. Egitura sozioekonomikora hurbiltzea UPV/EHUren jakintza eta ahalmen zientifiko eta teknologikoa

2.9.3. Komunikazio zientifikoko programa bultzatzea hainbat egitura eta ekitaldiren bidez: Kultura Zientifikoko Katedra, Zientzia Astea, Gazteak Laborategietan...

- ✓ 2018ko azaroaren 8tik 10era, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Astearen XVIII. edizioa egin zen, Donostian. 14 stand, 2 ibilbide didaktiko, 13 tailer, 3 erakusketa, 2 bideo emanaldi, lehiaketa bat, ikuskizun zientifiko bat eta Zientzia Kluba programako bakarriketa zientifikoak eskaini zitzaizkien bisitariei. 3.500 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten.
- ✓ Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzako taldeak landu duen kontratu bati esker, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreak Departamentuak babes eman dio Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Astearen XVIII. edizioari.
- ✓ Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Astearen elkarlanean aritzeko Donostiako Udalararekin hitzarmena sinatu da.
- ✓ CFM / Materialen Fisika Zentroarekin elkarlana abiatu dugu, "Creativium" erakusketa elkarrekin antolatuz.
- ✓ Hitzarmen bat sinatuz, Zientzia Kulturaren arloan Berezko Tituluak abiatu dira (<https://scientia.eus/>), UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrarekin eta UPNAko Kultura Zientifikoarekin elkarlanean.

2.10. Campuseko ikerketa jarduera ezagutzera ematen laguntzea.

2.10.1. Campuseko ikertzaileek estatuan eta nazioartean lortzen dituzten emaitzen komunikazio zientifikoa laguntzeko deialdia egitea.

- ✓ 2018-19 ikasturtean, Gipuzkoako Campuseko Batzorde zientifiko eta unibertsitate hedakuntzakoan kongresuetara joateko 38.900€ ebatzi ditugu. Ezezekoak eskaerak epe kanpo aurkezteagatik eta ikerketa jarduerarik ez edukitzeagatik izan dira.
- ✓ Hortaz gain, 5 laguntza eman ditu nazioarteko elkarte zientifikoetako zuzendaritza postuetan aritzeko (7.700 €).

2.10.2. Gipuzkoako Campusean jarduera zientifikoak egiteko deialdia egitea.

- ✓ 2018-19 ikasturtean, Gipuzkoako Campuseko Batzorde zientifikoak eta unibertsitate hedakuntzakoak 26 laguntza eman ditu campusean ekitaldi zientifikoak eta hedakuntzakoak antolatzeko (25000 €).

3. IRAKASKUNTZAREKIN KONPROMETITUTAKO UNIBERTSITATEA

3.5. Sinergian eta joera partekatuetan (komunikazioa, elkarren aitorpena eta ilusioa) oinarritutako antolaketa kultura sustatzea).

3.5.3. Campuseko kudeaketa eraikin eta ikastegietara hurbiltzea.

- ✓ Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzako zuzendaritza taldea campuseko eraikin eta ikastegietan izan da bisitan, zer premia eta proiektu dituzten jakiteko, zuzendaritza eta administrazio taldeen ahotik.
 - Uda Ikastaroak (Miramar): 2018ko irailaren 17a.
 - Zuzenbide fakultatea: 2018ko urriaren 1a.
 - Elbira Zipitria eta Esperientzia Gelak: 2018ko azaroaren 15a.
 - Carlos Santamaria: 2018ko azaroaren 22a.
 - IM Barriola: 2018ko abenduaren 5a.
 - Joxe Mari Korta: 2019ko otsailaren 15a.
 - Arkitektura Goi Eskola Teknikoa: 2019ko martxoaren 5a.
 - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea: 2019ko martxoaren 22a.
 - GIE-Donostia: 2019ko apirilaren 5a.
 - HEFA-I eraikina: 2019ko apirilaren 12a.
 - Kimika Fakultatea: 2019ko maiatzaren 10a.
 - Informatika Fakultatea: 2019ko maiatzaren 20a.
 - Zuzenbide fakultatea: 2019ko maiatzaren 27a.
 - Carlos Santamaria: 2019ko ekainaren 7a.
 - Psikologia Fakultatea: 2019ko ekainaren 14a.
 - GIE-Eibar eta IMH: 2019ko uztailaren 15a.

3.6. Prestakuntza eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa erraztea.

3.6.1. Harremanak estutzea Lanbide Heziketako eta Batxilergoko sareekin.

- ✓ 2018ko abenduan Gipuzkoako eskualdeetan UPV/EHUri buruzko jardunaldien edizio berri bat burutu zen (Arrasate, Azpeitia, Beasain, Eibar, Errenteria, Donostia, Irun, Legazpi, Tolosa, Zarautz). Jardunaldiak Batxilergoko eta Goi Mailako Heziketa Zikloetan matrikulatutako ikasleentzat eta beren gurasoentzat dira, baita 25 eta 45 urtetik gorakoentzako sarbide-probak egingo dituzten ikasleentzat, eta orientazioan edo irakaskuntzan diharduten eta UPV/EHUri buruzko informazio orokorra jaso nahi duten guztientzat ere. Jardunaldi hauen helburua UPV/EHUri eta etorkizuneko unibertsitate-ikasleen arteko lehen harremana bideratzea da. Era berean, unibertsitate honi buruzko informazio orokorra azaltzea eta unibertsitate-ikasketen gainean erabakiak hartzeko unean-uneke zalantzak argitzea.
- ✓ 2019ko urtarrilaren 26an, Unibertsitate Orientazioko Azoka egin zen. Ignacio Maria Barriola zentroan (Gelategia): Arteak eta Giza Zientziak, eta Gizarte eta Lege Zientzien adarrak + Unibertsitate Zerbitzuak; Santamaria zentroan Osasun Zientzietako graduen adarrak eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan (Donostia): Ingeniaritza, Arkitektura eta Zientzien adarrak.

- ✓ 2018ko abenduaren 13an, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza taldeak UNITOUR Unibertsitate Orientaziorako Azokan parte hartu zuen Kursaaan, UPV/EHUren eskaintza akademikoa ikasle gazteei aurkezteko.
- ✓ 2019ko martxoaren 7-8an, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza taldeak GELA Hezkuntza Aretoan parte hartu zuen, Donostian. Helburua da UPV/EHUren eskaintza akademikoa ikasle gazteei aurkeztea eta argibideak ematea.
- ✓ 2019ko martxoaren 26an, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza taldeak Iparraldeko Ikasleen Harrera Ekitaldian parte hartu zuen, Donostian. Helburua UPV/EHUren eskaintza akademikoa iparraldeko ikasleei aurkeztea eta argibideak ematea da. GIEn izandako hitzaldiarekin hasi zen, ondoren campuseko zentroen bisita eta GIEn emandako bazkariarekin amaitu zen.

3.7. UPV/EHUK bere inguruari egiten dion ekarpena ezagutzera ematea.

3.7.2. Zientziaren dibulgazioa indartzea gizartean.

- ✓ 2018ko azaroaren 8tik 10era, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Astearen XVIII. edizioa egin zen, Donostian. 14 stand, 2 ibilbide didaktiko, 13 tailer, 3 erakusketa, 2 bideo emanaldi, lehiaketa bat, ikuskizun zientifiko bat eta Zientzia Kluba programako bakarriketa zientifikoak eskaini zitzaizkien bisitariei. 3.500 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten.

5. BIZIKIDETZARAKO UNIBERTSITATEA

5.1. Azpiegiturak egokitzea prestakuntza eta ikerketa premia berrietara.

5.1.2. Espazio eta instalazioen bizigarritasun eta lan baldintzak hobetzea.

- ✓ Campuseko eraikinen hobekuntza eta egokitzapen lanak gauzatzen jarraitu dugu. Horrela, zenbait zentroetako itokinak eta hezetasunak kendu dira, hainbat estalki eta terraza inpermeabilizatu dira eta uholdeak ekiditeko, HEFA-Psikologiako tabernako euri-urak bideratu dira. Zuzenbide Fakultateko atzeko fatxadaren izkinan plakako estaldura berria jarri da eta bertako leiho batzuk ordezkatu dira baldintza termikoak hobetzeko. Informatika Fakultatean, berriz, seguritateko beira berriak jarri dira larritasuneko eskaileraren errezel-horman eta 95 pieza berri indartzeko.

Prebentzio Zerbitzuak eraikinen arriskuen ebaluazioan jasotako beharrak lehenetsi dira.

5.1.3. Laguntzen urteko deialdia egitea ikastegietako gelen eta laborategien irakaskuntza ekipamendurako.

- ✓ 2018ko otsailaren 7ko erabakiaren bidez, 515.410 euro bideratu dira Gipuzkoako Campuseko ikasgelen eta laborategien irakaskuntza ekipamenduak hornitzek. Informazio eta komunikazio-teknologiaren eguneratzea lortzeaz gain, enpresa eta gizartearen eskaerekin bat datozen ekintza eta gaitasunak eskaini nahi zaizkio ikaslegoari.

5.1.4. Laguntzen urteko deialdia egitea landa praktiketarako.

- ✓ 2018-19 ikasturtean, Gipuzkoako Campuseko Batzorde zientifikoak eta unibertsitate hedakuntzakoak 26 laguntza eman ditu campusean ekitaldi zientifikoak eta hedakuntzakoak antolatzeke (25000 €).

5.1.5. Gipuzkoako Campuseko ikastegietarako laguntzen deialdia egitea, aitortza akademikoko jarduerak antolatzeke 2018an.

- ✓ 2019-19 ikasturtean, Gipuzkoako Campuseko Batzorde zientifikoak eta unibertsitate hedakuntzakoak 10 laguntza eman ditu aitortza akademikoko ekitaldiak antolatzeke (10 ikastegi/atal, bakoitzak 1.500€).

5.2. Irisgarritasuna hobetzea unibertsitateko espazioetan.

5.2.1. UPV/EHUko irisgarritasun planaren ezarpenarekin jarraitzea.

- ✓ Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan (Donostia) eta Ignacio Maria Barriola Zentroan komun batzuk egokitu dira unibertsitate funtzionala dutenen erabilerarako. HEFA-Psikologia eraikina inguratzen duten eskailerak pintatu dira ikusmen urritasuna duten ikasleei sarbidea errazteko. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako (Donostia) aparkalekuan eta HEFA-Psikologia eraikinaren aurreko eta atzeko ataripetan irristatzearen kontrako tratamendua egin da. Zuzenbide Fakultatean, berriz, kanpoko barandak konpondu dira. Halaber, sarrera nagusietako ate automatikoen mantenu lanekin jarraitu da.

5.3. Eskainitako zerbitzuen kalitatea hobetzea.

5.3.1. Azterketa garaian, ahal dela, ikasteko gelak irekitzeko eta ixteko egunak egokitzea eta koordinatzea hiru campusetan.

- ✓ Aurreko urteetan egindako bideari jarraituz, 2018-2019 ikasturtean ere azterketa garaian ikasgelak zabaldu dira asteburuetan Elbira Zipitria Zentroan. Era berean, Carlos Santamaria Zentroa ere zabalik izanda larunbata goizetan kurtsoa amaitu arte.

5.3.2. Erabilera partekatuko espazioak uztea ikasleen elkarteei euren jardueretarako.

- ✓ Gipuzkoako Campuseko Ikasleen Kontseiluak Carlos Santamaria Zentroan jarraitzen du. Eraikinaren sarrera ondoko gela erabili du.
- ✓ Gainera, ikasleentzako jangela bat ere badu campusak, pabilioietan.

5.4. Bizi ohitura osasungarriak hartzen lagunduko duten ekimenak bultzatzea.

5.4.1. Lankidetza esparru egonkorak bultzatzea inguruko erakundeekin, kirol eskaintza erakargarria eta kalitatezkoa izan dadin.

- ✓ UPV/EHUren eta Ordizia rugby elkartearen arteko lankidetzarako oinarritzko hitzarmena sinatu da.
- ✓ UPV/EHUren eta Donostiako gimnasioen arteko lankidetza hitzarmenak sinatu dira ikasleek kirola egiteko erraztasunak izan ditzaten.
- ✓ Kirol arloan, Udaberriko Lasterketa antolatu da berriro, Donostiarrak elkarrekin batera (1.137 korrikalari).
- ✓ ADEGIk antolatzen duen Enpresen Lasterketan parte hartu dugu (XII. edizioa), 2 talderekin, enpresa ugaritako 500 talderekin batera. Gipuzkoako enprekin harreman onak mantentzeko beharrezkoa dela uste dugu.

5.4.2. Elikagai ekologiko eta osasungarrien erabilera bultzatzen jarraitzea jantokietan, kafetegietan eta vending makinetan.

- ✓ Kimika Fakultateko tabernaren lizitazio publikoa bideratu eta gauzatu da. Zerbitzua kontratatzeko jarraibide teknikoan orrian, menuak osasungarriak eta orekatuak izatearen beharra jaso zen.
- ✓ Barriola Zentroan kokatuta dagoen tabernaren enpresa esleipendunarekin lanean jarraitzen dugu bertan eskaintzen diren menuei ikuspegi osasungarria emateko.

5.5 Harremanak sendotzea inguruko erakundeekin

5.5.1. Lankidetza esparruak bultzatzea erakunde publiko eta pribatuekin, guztien intereseko jarduerak egiteko goi mailako hezkuntzaren, ikerketaren eta lurralde garapenaren esparruan.

- ✓ 2018ko otsailaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiak eta UPV/EHUK Etorkizuna Eraikiz programaren baitan 2018 eta 2019 urteetarako iraupena izango duen lankidetza estrategikoko hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honen baitan 2019 urtean 12 proiektu finantzatu dira, eta bertan parte hartu dute Gipuzkoako Campuseko 6 ikastegietako ikerlariak eta Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzako zuzendaritza-taldeak.

- ✓ Campuseko Errektoreordetzak, ADEGI, Gipuzkoako Enpresarien Elkartearekin elkarlanean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzari esker, "Gipuzkoako Talentuaren mapa: Erasmusen parte hartzen duten ikasleak erakarri eta atxiki" ikerlana diseinatu eta egin du.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Gipuzkoa Talent estrategiaren oinarrietako bat den TALENTIA (profesionaltasunerako gaitasunak) programaren bigarren edizioa abian jarri dugu Gipuzkoako Campusean. Programa honen helburua da unibertsitate-talentuaren garapena sustatzea Gipuzkoako Campusean. 2018/2019ko edizio berri honetan UPV/EHUko lehen mailako 79 ikasle izan dira aukeratuak parte hartzeko (51 emakume eta 28 gizonezko).
- ✓ Gipuzkoako enpresa-ehunarekin Campusak dituen harremanak areagotzeko, Teknologiaren Transferentzia bultzatzeko eta Campuseko estrategien emaitzetan eragin handiagoa lortzeko helburuekin, iaz Entreprenari programaren Aholku Batzordea sortu zen eta aurreko ere programari ekarpenak egiten jarraitu du.
- ✓ Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak "Zerga Iruzuraren kontrako tresnak" hitzaldia antolatu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzak Departamentuarekin elkarlanean. Hitzaldia GFAko Ogasun Diputatu jaunak eman zuen UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko gradu-aretoan 2018ko azaroaren 20an. Campuseko ikastegi ezberdinetako 35 ikasle hartu zuten parte (15 emakumezko eta 20 gizonezko).
- ✓ Campuseko Errektoreordeak eta Campusaren Garapenerako eta Kanpo Harremanetarako zuzendariak Donostiako Hiriaren Gizarte Kontseiluaren, honen Batzorde Iraunkorraren eta Plan Estrategikorako Lan Batzordearen bileretan parte hartu dute.
- ✓ Gipuzkoako Campuseko Campusaren Garapenerako eta Kanpo Harremanetarako zuzendariak Erakundeen Arteko Euskadi Ekintzailatza 2020 planaren jarraipen-batzordean parte hartu du.
- ✓ Gipuzkoako Campuseko Campusaren Garapenerako eta Kanpo Harremanetarako zuzendariak Toribio Echevarria sarien epaimahaiari parte hartu du. EAEko ekintzaileen lana aitortzen duten sariak dira.
- ✓ Hitzarmen hauek izapidetu ditugu erakundeekin:
 - Lankidetzarako esparru hitzarmena UPV/EHUren eta TKNIKA lanbide hezkuntzari aplikatutako ikerketa eta berrikuntzako EAE-ko zentroaren artean.
 - Oinarritzko lankidetzak hitzarmena, UPV/EHUren eta HEIZE, euskal eskola publiko ikastetxeen elkartearen artekoa.
 - Astigarragako Udalaren eta UPV/EHUren (AGET) arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena.
 - SECOT, seniors españoles para la cooperación técnica elkartearen (Gipuzkoako ordezkariak) eta UPV/EHUren arteko lankidetzako hitzarmena, unibertsitate horren Gipuzkoako Campusean oinarri teknologikoko enpresak sortzeko eta ekintzaileei sustapena, aholkularitza eta laguntza emateko jarduerak gauzatzeko.
 - Lankidetzak hitzarmena UPV/EHUren (Kimika Fakultatea) eta Euskadi, Burgos eta Errioxako Kimikarien eta Ingeniari Kimikoen Elkargo Ofizialaren artean
 - Oinarritzko lankidetzak hitzarmena, UPV/EHUren eta Construcciones y Auxiliarios de Ferrocarrilesaren artekoa.
 - Lankidetzarako esparru hitzarmena, UPV/EHUren (Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen Gipuzkoako Atala) eta grupo GISMAren artekoa.

- Lankidetza hitzarmena, UPV/EHuren (Informatika Fakultatea) eta Eurohelp Consulting, S.L.-aren artekoa.
- Oinarritzko lankidetza hitzarmena, UPV/EHuren (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola) eta GISMA taldearen artekoa.
- Lankidetza hitzarmena, UPV/EHuren (Informatika Fakultatea) eta INNOVAE-ren artekoa.
- Lankidetzarako esparru hitzarmena UPV/EHuren eta ORONA S. Coop-ren artekoa.
- 7 lankidetza hitzarmen sinatu dira UPV/EHuren Ekonomia eta Empresa Fakultatearen (Gipuzkoako Atala), erakunde kolaboratzailearen eta ikasle langilearen artean hezkuntza dualerako programa bat garatzeko (GRUPO WEC, SAVVY DATA SYSTEMS SL, GRUPO EASO MOTOR, TEMOC SL, ORKLI S. COOP, ABICOR BINZEL IBÉRICA SL, UNIALCO SL).
- Lankidetza hitzarmena, Catalunya Generalitat-eko Departament de Treball, Afers Socials i Famílies-eko Direcció General d' Atenció a la Infància i l' Adolescència (DGAIA) eta UPV/EHuren artekoa "Egoitza harrerako adin txikikoei zuzenduriko animalien bidezko psikoterapia: suizidioaren prebentzioa" proiektua burutzeko
- UPV/EHuren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmena Itsasoko ur azaleko eta hondartzetako mikroplastikoen edukari eta horien karakterizazioari buruzko jardueretan (ITSASMIKRO).
- Lankidetza hitzarmena, UPV/EHuren eta ONKOLOGIKOA Fundazioaren artekoa ikerketa jarduerak egiteko
- Lankidetza hitzarmena UPV/EHuren eta Donostiako Udalaren artekoa, haur babesaren arloari buruzkoa
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta UPV/EHuren arteko lankidetza hitzarmena Pentsamendu Garaikiderako "Joxe Azurmendi" Katedra Proiektua sortzeko, garatzeko eta mantentzeko.

5.5.2. Ikasleen bikaintasuna ikusgai jartzea beraien aintzatespen publikoaren bidez.

- ✓ 2018ko azaroaren 21ean Gipuzkoako Campusean dauden ikastegiekin eskaintzen dituzten gradu ezberdinetako 2017/18 ikasturteko espediente hoberenei aitortza ekitaldi bat egin zitzaion. Campuseko 21 titulazioetako 42 espediente hoberenei (59.52% emakume, 40.47% gizonezko) diploma eman zitzaion.

5.6. Kultura unibertsitateko bizitzan txertatzea.

5.6.1. Lankidetza finkatzea eta handitzea inguruko kultur eragileekin, erakunde publikoekin eta pribatuarekin, kultur jarduerak bultzatzeko.

- ✓ Lankidetza jarraitu dugu Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroarekin (TABAKALERA), euskal gizartearen gaitasun kultural, artistiko, unibertsitario eta ikertzailea indartzeko balioko duten jarduerak antolatzeke elkarlanean.
- ✓ Lankidetza hitzarmena sinatu da Gipuzkoako Foru Aldundia, UPV/EHU, MU, Deustu-ko Unibertsitateak eta Tecnun-UN egin, unibertsitate ikasleen artean euskararen erabileraren aldeko motibazioak lantzeko.
- ✓ Lankidetza hitzarmena berriro eta sinatu da Donostiako Orfeoiaekin.
- ✓ Lankidetza hitzarmena sinatu da SM Fundazioarekin, "Hezkuntza eskubidearen aldeko XIV. Jardunaldiak: Bizitza aktibo-heldurako transizioak" antolatzeke.
- ✓ Lankidetza hitzarmena sinatu da UPV/EHuren Hezkuntzaren museoaren eta Donostiako Udalaren artean.

- ✓ Lankidetza hitzarmena sinatu da UPV/EHU eta ALIANZA FRANCESA DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN elkartearen artekoa, unibertsitateko kideek frantsesa ikasi ahal izateko, haien artean herrialde frankofonoetako kultura zabaltzeko, eta ikasleen mugikortasuna sustatzeko.
- ✓ "Musikaz gozatu" ikastaroa antolatu dugu MUSIKENErekin (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia). 25 plaza bete ziren.
- ✓ Antzerki Faktoria, Gipuzkoako Campuseko antzerki taldeak, "Beckettiana" antzezlanak aurkeztu du Donostian eta Iruñean.
- ✓ UPNAko antzerki taldearekin elkarlana jarraitu dugu. Horrek Barriola Zentroan "Algún amor que no mate" antzezlanak aurkeztu zuen.
- ✓ Unibertsitate Eszena Arteak (unea) elkartea sortu du Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak, eta bere esku utzi du campuseko antzerkiaren martxa, 2019-20 ikasturtean hitzarmena sinatzeko asmoarekin.
- ✓ Kaxilda kultur elkarrekin dugun elkarlana sendotu da, bertan Donostia Kulturarekin batera elkarriketak antolatu dira.
- ✓ Campuseko Poesia Tailerrak kurtso amaierako errezitaldia antolatu zuen Donostiako ARTEKO erakusketa aretoan.
- ✓ Orfeoi Donostiarra-UPV/EHU sariaren XVIII edizioa ospatu da, sarituak Jose Luis Loidi, Lourdes Yarza eta Raúl del Toro Sola ikertzailea izan direlarik. Sari-emate ekitaldian Orfeoiak jaialdi berezia eskaini zuen Barriola eraikinean.
- ✓ Alliance Française-rekin elkarlanean Frantsesezko Zinema Zikloa eta Campus Poétique errezitaldia antolatu dira.
- ✓ Kresala Zine Klub-arekin elkarlanean aritu gara, beraien programazioa campuseko pantailatan hedatu delarik.
- ✓ Erakusketak programatu dira Giza Eskubideen Zinemaldiarekin eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinema Jaialdiarekin elkarlanean, Donostia Kulturaren Zinema Atalak eta hainbat GKEk antolatuak.
- ✓ Bilerak egin ditugu sektore publikoko erakundeekin elkarlana sendotzeko (Tabakalera eta Musikene), baita erakunde pribatuekin ere (Jakin Fundazioa, Kutxa Fundazioa, Coro Easo, Dock of the Bay jaialdia edo Donostiako Orfeoia).

5.6.2. Ikasleekin komunikazio bideak bultzatzea, kultura eta kirol politikak elkarrekin diseinatzeko.

- ✓ Gipuzkoako Campuseko ikasleek eta unibertsitateko kide guztiek kultur arloan dituzten kezkek eta interesak biltzeko, "Kultura Martxan" ekitaldia burutu da 2018-19 ikasturte amaieran (ekainean), kultur arloko kanpoko adituekin (Marina Garcés eta Pablo de Lara). Txillardegia Aretoa bete egin zen eta bideo bat ekoiztu dugu emaitzak partekatzeko.
- ✓ Txillardegia aretoan erakusketak jartzeko prozedura egonkortu da, eta ikastegi guztietan zabaltzeko da ikasleen proposamenak jaso ahal izateko. Aretoan izandako erakusketa bat ikasleek egin da (Arkitektura masterreko lanak).
- ✓ Ikasle talde baten ekimenez, Gipuzkoako Campusa NaNoWriMo-ren erakunde laguntzaile bezala erregistratu da. Nazioarteko ekimen honetan mundu guztiko

pertsonak azaroan obra bat idazteko konpromisoa hartzen dute. Ikasle talde horrek laguntza puntuala jaso zuen eta baita azaroan zehar biltzeko lekua ere.

5.6.3. Campusean kultura eta kirol jarduerak antolatzea.

- ✓ Lauhileko bakoitzean EHUk kulturako hainbat ikastaro antolatu dira. Kudeaketa eredua aldatu da eta hemendik aurrera ikastaro bakoitza behin bakarrik errepikatuko da. (Errotazioaren bitartez aniztasuna babestu eta inertzia ekiditen dugu, ideia berriei tokia eginez. Bide batez, horrek ere lagunduko digu genero eta estiloen arteko oreka bilatzen.)
- ✓ Babesa berezia eman zaie euskarazko kultura ekimeni, Euskararen arloko Errektoreordetzarekin elkarlanean: Euskaraldia (Anari eta Jokin Pinatxo kontzertua, Bertso saioa...), EHUskaralari deialdia, Euskararen Nazioarteko Eguna (4 ekitaldi koordinatuz), Gipuzkoa Berdinago (Gipuzkoako Foru Aldundia), Jendaurrean Erabili (Eusko Jaurlaritza).
- ✓ Gipuzkoako Campuseko batzarrak onartu zuen aho batez Carlos Santamaria Zentroko Erakusketa Aretoari "Txillardegia Aretoa" izena jartzea, bere lanaren eta ekarpenari aitortza egiteko. Bertan, 2018-19 ikasturtean 12 erakusketa antolatu izan dira, 6 lauhilabete bakoitzean.
- ✓ Gipuzkoako Campusean Antolatu diren kirol txapelketetan, 1.615 kirolarik parte hartu dute: 830ek neguko txapelketetan eta 785ek udaberrikoetan. 26 kirol modalitate izan dira (bakarkakoak nahiz taldekakoak) eta 223 taldek parte hartu dute, gizonen, emakumeen eta talde mistoen kategorietan.
- ✓ Bestetik, ikasturtean zehar, hainbat Kirol Zentroetan ikastaroak egin ditugu, eta udaberrian, 18 kirol eta abentura jarduera egin dira ingurune naturalean. Gainera, beste jarduera puntual batzuk ere egin dira, ingurumenari eta haren erabilera arrazionalari lotuak (airea, ura, mendia, elurra, etab.).
- ✓ 488 lagunek parte hartu dute kirol modalitateak sustatzeko ikastaroetan lehen lauhilekoan; 477 lagunek, bigarrenean. Aldiz, 342 lagun aritu dira naturan eginiko jardueretan eta 48 Fitness egunean. Guztira 1525 pertsonen parte hartu dute kirola sustatzeko ikastaroetan.
- ✓ Azkenik, ikasle, irakasle eta langileen Gipuzkoako Campuseko kirol instalazioen erabilpenak gora egin du.

5.6.5. Bultzada ematea unibertsitate hedakuntzako, kultura hedakuntzako eta unibertsitate irudia ikastegietan zabaltzeko jardueri.

- ✓ 2018-19 ikasturtean, Gipuzkoako Campuseko Batzorde zientifikoak eta unibertsitate hedakuntzakoak 26 laguntza eman ditu campusean ekitaldi zientifikoak eta hedakuntzakoak antolatzeko (25000 €).

5.7. Campus jasangarria izateko estrategia orokorra garatzea.

5.7.1. Unibertsitateko kideak sentsibilizatzea bizikleta ordezkoko garraiobide moduan erabiltzearen inguruan.

- ✓ Bizikleta konpontzeko gunea egokitu dugu Barriola eraikineko aterpean.

5.7.2. Inguruko entitateekin lankidetzan jardutea bizikletaren eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko ekintzetan.

- ✓ Errektoreordetzak KALAPIE elkartearekin duen hitzarmenaren garapenean, lanean ari gara unibertsitatean mugikortasun jasangarria bultzatzeko plan

batean, helburu nagusitzat izango duena bizikleta aurkeztea campusera etortzeko garraiobide egoki gisa.

- ✓ Gainera, Donostiako Udalarekin koordinatuta, mugikortasun astean parte hartu dugu, eta bizikletak konpontzeko bi tailer egin dira ikasleentzat.

5.7.4. Autoa partekatzeko eta erabiltzaile askoko ibilgailuak aparkatzeko programak mantentzea eta bultzatzea.

- ✓ UPV/EHU osoaren erabakia izan da "Autoa partekatu" aplikazioaren kontratazioarekin ez jarraitzea. Beraz, 2018 urtea amaitzean kontratua bertan behera geratu da.
- ✓ Hitzarmen bati esker, Gipuzkoako Campuseko ikasleek tarifa berezia daukate partekatutako autoa aparkatzeko Udalekoak diren Campuseko TAO aparkalekuetan.
- ✓ Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentuarekin sinatutako hitzarmenak berritzen ari gara, UPV/EHUren jabetzakoak diren lursailak aldirietako aparkaleku gisa erabiltzea baimentzeko.

5.8. Prebentzio eta osasun planak sustatzea eta garatzea campusean.

5.8.1. Campuseko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen aldia behingo bilerak mantentzea eta campus arteko batzordearen bileretan parte hartzea.

- ✓ Gipuzkoako Campuseko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerekin jarraitu dugu, eta campus arteko batzordearen bilera guztietan ere izan gara.

5.8.2. Campuseko ikastegietako larrialdi eta ebakuazio planei bultzada ematea, haien inguruan sentsibilizatzea eta plan horiek garatzea.

- ✓ Programatutako simulakroak egiten eta ikastegi guztietako prebentzio planak eguneratzen jarraitu dugu.

6. GURE INGURUAN ERROTUTAKO UNIBERTSITATEA

6.5. Euskarazko ekoizpen zientifikoa bultzatzea, zabaltzea eta dibulгатzea.

6.5.2. Euskara euskarri digitaletan (blogak, Wikipedia...) ager dadin bultzatzea.

- ✓ EHU-Wikipedia 2018-19 ikasturteko proiektua gauzatu dugu, Euskal Wikilarien Kultura Elkartearekin koordinatuta. Bertan 150 artikulua igo dira Gipuzkoako Campusetik.

6.6. Erreferente izatea euskal arte eta kulturaren arloko prestakuntzan, ikerketan eta zabalkundean.

6.6.1. Euskal arte eta kultura adierazpenen azterketarekin eta gizarte proiektzioarekin lotutako jarduerak bultzatzea eta zabaltzea.

- ✓ Hiru campusetako EHUKultura programazioaren dibulgazioaren kudeaketa koordinatua egin dugu, eta sare sozialetan duen presentzia eguneratu dugu (FB eta Twitter).
- ✓ EHUKultura bloga (<http://www.ehu.eus/ehusfera/ehukultura/>) egonkortu dugu, eta ikasturte osoan izan da ehusfera osoko blogarik eguneratuenetako bat.

6.8. Gizarte eta kultura arloetako eragileekiko harremana indartzea.

6.8.3. Babesa ematea erakunde katedrei.

- ✓ Hedakuntza zuzendaritzak bilerak egin ditu Mikel Laboa katedrarekin eta Joxe Azurmendi katedra proiektuarekin jarduera koordinazioa aztertzeko.
- ✓ Mikel Laboa katedrarekin bi ikastaro elkarlanean antolatu dira 2019-20 ikasturterako.

7. MUNDURA IREKITAKO UNIBERTSITATEA

7.2. Euroeskualdeko erakundeekiko lankidetza finkatzea.

7.2.1. Gure presentzia eta parte hartzea finkatzea Akitania-Euskadi-Nafarroa sarean.

- ✓ Baterako titulaziorako eta titulu bikoitzeko hitzarmen hauek izapidetu ditugu:
